



1,3 MILIOI LAGUN BAINO GEHIAGO 496 EKITALDIETAN

Aurten 1.333.722 lagun inguru zenbatu dira sanferminetan programatutako 496 ekitaldietan. Oro har, ekitaldi guztiak egoki eta normaltasunez gertatu dira, salbu uztailaren 8ko (astelehena) arratsaldean programatutakoak, euria zela-eta bertan behera geratu baitziren programatutako ekitaldi guztiak, Compañía plazako eta Gurutzeko plazako kontzertuak izan ezik. Gauez, su artifizialak eta kontzertuak normaltasunez egin ziren, Foruen plazako kontzertua izan ezik, bertan behera geratu baitzen aurreko orduetan bota zuen euriak eragindako arazoengatik.

Ekitaldi jendetsuak: 572.000 parte-hartzaile

- **Su artifizialak:** 382.000 ikusle inguru Yanguas y Mirandan, Armada etorbidean eta Gaztelugibelen
- **Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa:** 190.000 lagun

Haur eta familiendako jarduerak: 290.950 parte-hartzaile

- **Birjolastu:** 65.000 lagun
- **Hauek Festak Hauek!:** 130.000 lagun
- **Kirol Ari Media Lunan:** 9.000 lagun
- **Haurrendako entzierroak:** 6.400 lagun
- **Kale-antzerkia:** 27.500 lagun
- **Txotxongiloak:** 8.950 lagun
- **Haurrendako trenak:** 9.400 bidaiari, Askatasunaren plaza eta Merindadeen plaza lotzen dituzten trenetan
- **Haurrendako dantza-jaialdia:** 2.000 parte-hartzaile
- **Haurrendako antzerkia (Sarasate pasealekua):** 700 lagun
- **Zezensuzkoa:** 32.000 lagun

Kontzertuak eta musika-dantzaldiak: 192.686 lagun

- **Foruen plaza:** 59.000 lagun
- **Compañía plaza:** 21.900 lagun
- **Gurutzeko plaza:** 18.736 lagun dantzaldietan, Los Sirexen emanaldia barne
- **Gazteluko plaza:** 88.100 lagun, arratsaldeko zein gaueko dantzaldietan
- **Musika-bandak:** 4.950 lagun Gurutzeko plazan

Folklore-musika: 194.000 lagun

- **Sarasate pasealekuko jotak:** 7.800 lagun



- **Dantzaldiak txistulari eta gaiteroekin Gazteluko plazan:** 7.000 lagun
- **Uztailaren 6ko folklore-jaialdia, Foruen plazan:** 3.500 lagun
- **Jauzi-jaialdia Gazteluko plazan:** 1.500 lagun
- **Gaita-jotzaileen alardea:** 6.000 lagun
- **Txistularien Alardea:** 900 lagun
- **Bertso-saioak Sarasate pasealekuan:** 600 lagun
- **Dantza-emanaldiak Sarasate pasealekuan:** 1.700 lagun
- **Musika kalean:** 165.000 lagun

Gazte eremua (Foruen plaza): 2.550 gaztek parte hartu dute programatutako jardueretan. Uztailaren 8an, euria zela-eta, aurreikusitako jarduerak guztiak bertan behera geratu ziren.

Bestelako ekitaldiak: 80.021 lagun

- **Txupinazoa (Udaletxe plaza, inguruko kaleak eta pantaila erraldoiak):** 51.500 lagun
- **Herri-kirolak:** 4.000 lagun
- **Kulturen kalejira:** 4.000 lagun
- **Haurren Eskaintza:** 4.800 lagun
- **Erakusketak:** 4.674 lagun Kondestablearen jauregiko erakusketetan
- **Gayarre antzokia:** 6.547 ikusle *The Hole Zero* ikuskizunean
- **Gaixoa ni:** 4.500 lagun
- **Ekitaldi erlijiosoak (Bezperak eta Zortziurrena):** 1.600 lagun
- **Kontsigna:** 625 lagun



SALAKETAK

Segurtasun kidego guztien artean **2.005** salaketa jaso dira guztira sanferminetan. 2018an 1.906 izan ziren. Hortaz, salaketak % **5** igo dira. Kasu gehienak, aurreko urteetan bezala, ebasketak izan dira (guztizkoaren % 63), eta ondoren lapurretak (% 5). Eraso sexistei dagokienez, guztira 12 salaketa jaso dira. Guztira 5 lagun atxilotu dira.

	2019	2018	2017
Segurtasun kidego guztiek jasotako salaketak	2.005	1.906	1.671
Lapurreta indarra erabilita	70	103	96
Lapurreta indarkeria erabilita	45	33	44
Tratu txarrak familian	27	27	18
Sexu-erasoa	2	--	2
Sexu-abusua	10	6	12
Lesioak	63	48	55
Agintaritzaren agenteen kontrako atentatua, erresistentzia, desobedientzia	26	15	12
Osasun publikoaren aurka	5	7	5
Atxilotze-agindua / Pertsonatzea / Espetxean sartzea	5	6	5
Kalteak	34	53	41
Ebasketak	1.279	1.219	1.020
Atzerriartasunarekin lotutakoak	6	2	2
Gainerakoak	433	383	351

Udaltzaingoaren salaketak arau-hauste administratiboak direla-eta. 146 salaketa egin dira Gizalegeari buruzko Udal Ordenantza urratzeagatik, 8, terrazei buruzkoa urratzeagatik, eta 37, Herritarren Segurtasunaren inguruko 4/2015 Lege Organikoa urratzeagatik.

	2019	2018	2017
Gizalegeari buruzko udal ordenantza	146	230	154
Terrazei buruzko udal ordenantza	8	3	2
Herritarren Segurtasunaren inguruko 4/2015 Lege Organikoa	37	32	57



ZIRKULAZIOA ETA ETILOMETRIAK

35 istripu. Aurtengo sanferminetan 35 istripu izan dira, horietatik 3 harrapatze-istripuak, eta orotara 7 lagun arin eta 3 larri zaurituta izan dira.

Etilometria eta droga-kontrolak. Bestalde, Udaltzaingoak hainbat etilometria eta droga-kontrol egin ditu, jaietan alkohola edota beste droga mota batzuk hartu ondoren autoa erabili dutenak zigortzeko eta halako portaerak galarazteko. 6.000 etilometria-proba baino gehiago egin dira, eta horietatik 38 positiboak izan dira eta administrazio-salaketak jaso dituzte, hau da, guztizkoen % 0,6; 7 salaketa epaitegietara bideratu dira. Drogak atzemateko probei dagokienez, 20 egin ziren, horietatik 2 positiboak izan ziren, administrazio-salaketak jaso zituzten.

UDALTZAINGOAREN BESTE JARDUKETA BATZUK

Jazoera baten aurrean, herritarrek eskatuta. Udaltzaingoaren Ekintzen Koordinazio Zentrotik Udaltzaingoaren patruilak mobilizatu dira herritarren 1.119 eskariri erantzunez. Zifra horrek % 15eko igoera dakar 2018ko datuen aurrean. Udaltzaingoaren esku-hartzea eskatu duten deiez gain, Udaltzaingoaren Ekintzen Koordinazio Zentroan 586 dei jaso eta 245 egin dira.

Baimenik gabeko salmenta ibiltaria sanferminetan. Eginahal berezia egin da hirian baimenik gabeko salmenta-postu ibiltariak (*manteroak*) ez onartzeko. Herritarren mugimendu librea oztopatzeaz gain, lehia desleiala egiten dio ezarritako merkataritzari, batzuetan faltsifikazio-delituak egiten ditu eta mafien esplotazioa ekartzen die bertan ari diren pertsonen. Festen aurreko egunetan lan egin zen polizia-prebentzioan eta inteligentzia arloetan, eta festetan, polizia-presentzia handia izan da, aurreko urteetan egon diren lekuak bete eta zaintzen. Eginkizun horretan koordinatuta aritu dira Udaltzaingoa, Foruzaingoa eta Polizia Nazionalea, kaleak eta plazak horien artean banatuta.

Konfiskazioak. Iruñean baimenik gabeko salmenta-postu ibiltarien presentzia murrizteaz gain, 79 konfiskazio izan dira, hau da, iaz baino % 25 gehiago. Batez ere konfiskatu dira jatekoak eta edatekoak (32), osasungarritasun baldintzak bermatzeko helburuz. Halaber, 12 eginbide judizial ireki dira jabego industrialaren kontra.

HERRITARREN SEGURTASUNEKO BESTE ESKU-HARTZE BATZUK

Objektu galduak. 2019ko sanferminetan 1.220 objektu sailkatu dira. 2018an 1.167 izan ziren, hau da, aurtun % 4,54 gehiago izan dira. Horietatik 422 jabeek berreskuratu dituzte. Dokumentazioaren bat edukita identifikatu izan direnei dagokienez, oharra bidali zaie, gutun bidez, 681 jaberri.

Ganadu-feria. Urtero bezala, uztailaren 7an San Ferminen Ganadu-Feria egin da. Bertan 360 animalia izan ziren ikusgai, 49 ganaduzalek aurkeztuta. Guztira 230 animalia saldu ziren.

Larrialdiko osasun-garraioek eramanak festa-inguruan. Guztira 224 lagun eraman dituzte, 2018an baino askoz gutxiago, orduan 362 izan baitziren (% 38 gutxiago). Nabarmentzekoa da alkohol-intoxikazioaren ondorioz eramandakoak, 101 izan baitira, kasu guztien % 45. Iaz 161 lagun eraman zituzten alkohol-intoxikazioagatik.



ENTZIERROKO LASTERKARIAK

13.800 korrikalarik parte hartu dute 2019ko sanferminetako zortzi entzierroetan, iaz baino % 2 gutxiago. Festen bi unetan korrikalari gehiago daude, batez ere festen hasieran, lehenengo entzierroetan, eta asteburuetan. Aurten bi baldintza horiek batera eman dira, horregatik lasterkari gehien uztaillaren 7an izan ziren, igandearekin, egun horretan 2.300 lasterkari izan baitziren; bigarrenik uztaillaren 14ko entzierroa (igandea) izan zen, 2.100 lasterkarirekin. Azken datu hori harrigarria izan daiteke, azkeneko entzierroa jende gutxikoa izaten baita. Lehenengo bi entzierroak pasata, lasterkari-kopuruak behera egin du, eta 1.300-1.400 artean mantendu da aste osoan zehar; ondoren, berriz ere gora egin du festen bigarren asteburuan.

Azkenik, nabarmendu behar da aurtengoak azkarrenak izan direla, 2018koekin batera, 2015 urtetik; batez beste 2'27" iraun dute, eta urte hartan 2'19" iraun zuten.

Eguna	2019		2018		2017	
	Eguna	Guztira	Eguna	Guztira	Eguna	Guztira
7	igandea	2.300	larunbata	2.094	ostirala	2.504
8	astelehena	1.900	igandea	2.014	larunbata	2.984
9	asteartea	1.700	astelehena	1.758	igandea	2.501
10	asteazkena	1.300	asteartea	1.924	astelehena	1.995
11	osteguna	1.400	asteazkena	1.522	asteartea	1.933
12	ostirala	1.400	osteguna	1.639	asteazkena	2.140
13	larunbata	1.700	ostirala	1.521	osteguna	1.724
14	igandea	2.100	larunbata	1.638	ostirala	1.345
GUZTIRA 2019		13.800	GUZTIRA 2018	14.110	GUZTIRA 2017	17.126

Adarkatuak

2019ko entzierroetan **zortzi lasterkari** izan dira zezenek adarkatuta. Horretaz gain, beste 35 lasterkari ere eraman zituzten osasun zentroetara erorikoen, zapaltzeen zein bestelakoen ondorioz.

Entzierroaren Udal Ordenantzaren arau-haustek: 25

2019ko entzierroetan 25 lasterkari zehatu dira Entzierroaren Ordenantza ez betetzeagatik, iaz baino 20 gehiago. Zehapen horiek eragiten dituzten isunak jasota daude Nafarroako Ikuskizun Publikoak eta Josteta Jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legean. Salaketen arrazoi nagusiak dira argazkiak egitea entzierroaren ibilbidearen barnean eta animaliak ukitzea. Iaz 6 salaketa izan ziren, eta 2017an, 14.



“PAMPLONA LIBRE DE AGRESIONES SEXISTAS/ERASO SEXISTARIK GABE, IRUÑA ASKE”

Gazteluko plazako eraso sexisten aurkako argibide-gunea: 14.375 lagun joan dira informazio bila, eta 31 gorabeheraren berri jaso da. Lagun egiteko zerbitzuaren protokoloa, erasotutako emakumeak eskatuz gero Udalak eskaintzen duena, behin aktibatu da.

Uztailak 5: 825 lagun

Uztailak 6: 1.700 lagun

Uztailak 7: 2.100 lagun

Uztailak 8: 1.050 lagun

Uztailak 9: 1.300 lagun

Uztailak 10: 1.600 lagun

Uztailak 11: 1.600 lagun

Uztailak 12: 1.350 lagun

Uztailak 13: 1.550 lagun

Uztailak 14: 1.300 lagun

Gorabehera-kop.: 31

Lagun-egite zerbitzuaren aktibazio-kop.: 1

Sanferminetan eraso sexistei aurre egiteko prebentzio-kanpaina

Zenbait material erabilgarri paratu dira argibide-gunean, Udalaren webgunean eta *San Fermin Iruña* mugikorrerako aplikazioan. Halaber, material horiek banatu dira hoteletan, tabernetan, dendetan, kanpinetan, festaguneetan, peñetan, HIESAren aurkako Batzordean, Gazteriaren Kontseiluan, garraiobideetan...

Euskarriak:

- Udal-bandoan mantendu da lelo edo eduki sexistak dituzten materialak saltzeko debekua
- Neurri handiko 3 esku gorri paratu dira Bake plazan, Taconera parkean eta Gipuzkoako etorbidean
- Kanpainaren irudia txertatu da udal-agertokien olanetan, hiri-garraioan, markesinetan, taxietan, autobusetan, txupinazoaren trenean, turistendako argibide-guneetan, autobus-geltokian, tren-geltokian eta aireportuan
- Kanpainaren irudia mantendu da Udalaren edalontzi berrerabilgarrietan
- Kanpainaren irudia 4 egunkaritan (Diario de Navarra, Diario de Noticias, Gara eta Berria)
- Bideo bat eta iragarki bat egin dira, eta horietan emakumeak dira festetako protagonistak (hedapena egin da sare sozialetan, telebistan, Golem zinema-tokian eta zezen-plazan)
- Irratiko iragarkiak kanpaina hedatzeko
- Kazetaritza-jardunbide onenen II. Lehiaketa



- 1.000 kartel (sanferminetako aplikazioaren QR kodea txertatu da)
- 26.000 informazio-gida
- 40.000 pin
- 40.000 pegatina
- 360.000 ezpainzapi
- 10.000 koaderno didaktiko, berdintasuna lantzeko, 5 eta 8 urte bitarteko haurrei zuzenduak

Entitate laguntzaileak *Pamplona libre de agresiones sexistas/Eraso sexistarik gabe Iruña aske* estrategiarekin:

AENA, ANAPEH. ASBANA, EUNATE-Entzuteko Desgaitasuna dutenen Familien Elkarte, Nafarroako Ostalarien Elkarte, Tele Taxi San Fermín elkarte, Iruñeko merkatarien elkarteak, ASORNA, Bilmanbus, CERMÍN, GOLEM zinematokiak, Osasuna Klub Atletikoa, COCEMFE, Peñen Federazioa, Geltoki, Herri Sanferminak, Napar Bideak S.Coop, La Unión, Mankomunitatea-TCC, Monbus, Zezen-plaza eta Paris 365.

Lagun-egitea eta arreta

Ikuspegi orokor eta integratzaile batetik abiatuta, “Pamplona libre de agresiones sexistas/Eraso sexistarik gabe, Iruña aske” strategiako baliabide erabilgarri guztien oinarria da eraso jasan duen emakumea eta horren ingurunea babesteko jarrera irmoa eta erradikala. Lagun egiteko gizarte-zerbitzuko teknikariak laguntza emateko moduan egon dira, 24 orduz, inork eraso sexistarik jasaten bazuen laguntzeko prest, eta bertaratu egin dira behar izan den tokietara, erreferentziazko figura tekniko gisa laguntzeko eta martxan jartzen diren dispositiboen arteko lokarri gisa aritzeko, emakumeei hala babes soziala zein emozionala eta orientazioa emateko nola kasu bakoitzean erabilgarri diren zerbitzu eta baliabideen berri emateko. Hori guztia osatu egin da argibide-gunean emandako arretarekin, non aholkularitza-zerbitzua eman eta lagun-egite zerbitzua aktibatzeko aukera eskaini baita, halakorik behar izatera (2019an behin aktibatu da).



GARBIKETA

Zabor-bilketari buruzko datuak, uztailaren 14an: 1.103.140 kilo (% 8,7ko gorakada)

- Beira: 478.960 kilo (% 17,47ko gorakada)
- Zaborra: 349.220 kilo (% 2,56ko murrizketa)
- Ekorketa: 274.960 kilo (% 14,84ko murrizketa)

Beira gehiago, eta zorua ekortzean bildutako zabor gutxiago

Beirak erabat baldintzatzen du bildutako pisuari buruzko azken balantzea. Festen hasiera asteburuan izan da, bisitari gehien etortzen direnean, eta hasierako egunetako tenperaturak oso altuak izan dira; bi kontu horiek izan litezke beira gehiago erabili izanaren arrazoiak.

Ekorketan bildutako hondakin-kopurua murriztu dela antzeman da, ekorketaren barruan aintzat hartuta goizaldean bide publikoan jasotako hondakinak, edukiontzi gorrietakoak, eta makinekin zein eskuz egiten den ekorketa. Kolean hondakin gutxiago bildu dira, eta hori faktore ezberdinei egotz dakioke: ostalarien laguntza; herritarren sentsibilizazioa, jokabide gizabidezkoagoak hartu eta ekidin baitute bide publikora jaurtitzea edalontzi eta botilak; balizko ohitura-aldaketa, egunez ateratzearen eta beira erabiltzearen aldekoa, gau-jardunaren kaltetan; eta edalontzi berrerabilgarriaren erabileraren pixkanakako hedapena.

Birziklatze gehiago. Aurreko urteetako arrakasta ikusirik, 1.000 litroko edukiontzi gorriak jarri dira Gazteluko plazan eta Gaztelugibeleko landan (su-artifizialeterako eremuaren inguruan), bertan plastikozko hondakin ugari sortzen baitira (ontziak, batez ere). Halaber, Gazteluko plazan, Karlos III.aren etorbidean, Orreaga etorbidean eta autobus-geltokiko landan sortutako hondakinak gaika bildu dira (beira eta gainerakoa), iaz egin zen bezala, eta Sarasate pasealekua eta zezen-plazaren inguruak gehitu dira, bertako hondakin gehienak plastikozko ontziak baitira. Horrela lortu da ekorketan bildu eta plantan tratatu daitekeen zabor kopurua ekorketa osoaren % 10 izatea. Datorren urtean ekimena beste gune batzuetara hedatzen jarraitzea aztertuko da.

250 langile eta 69 makina. Garbiketako udal-zerbitzua indartu egiten da sanferminetan: urtean zehar, 110 lagunek egiten dute lan hori astelehenetik ostiralera, eta festetan, berriz, 250 langile aritzen dira garbiketa-zereginetan. Bestalde, 69 ibilgailu eta makina erabiltzen dira garbiketa-lan horietan.

Garbiketaren arloko puntu beltzak. Garbiketari loturik aipatutako alderdi gehienak positiboak badira ere, badira alderdi negatiboak, bide publikoan txiza egiteak dakarren usain txarra, besteak beste. Aurten ere, probak egin dira hala usaina kentzeko produktuez nola usaina bera agertzea hein handi batean galarazten duten beste produktu batzuez. Bereizgarri jo diren leku batzuetan lortutako emaitzek bide ematen dute halako produktuen erabilera orokortzea planteatzeko, datorren urteari begira.

Edozein kasutan, gizatasunaren aldeko deia egin beharko da, arazoaren jatorria saihesteko, hondakinekin egiten eta lortzen ari den bezala.



EDALONTZI BERRERABILGARRIAK: 500.000 INGURU

Aurten **463.367 edalontzi berrerabilgarri** banatu dira; hor lokalek biltegietan zeuzkaten edalontziak gehitu behar dira. Gaur, eta behin-behineko datuekin bat, 200.000 edalontzi garbitu direla esan ahal dugu. Aste honetan eta hurrengoan edalontzi gehiago garbituko dira; izan ere, gaur, astelehenarekin, asteburuan erabilitako edalontziak biltzen hasi dira. Edalontzia 78 tokitan izan da, hala nola hauetan: lokal pribatuak, udal-esleipenak eta jai-guneak. Edalontziak presentzia handiagoa izan du zezen-plazan, Nafarroa Oinezeko gunean, peñetan eta Calderería kalean.

Edalontzi berrerabilgarria egunean 5 aldiz erabil daitekeela kalkulaten da, eta horrek botatzekoak diren 5 edalontzi ez erabiltzea dakar. Gutxi gorabehera **3.700.000 erabilpen** izan dira; hortaz, baliabideak (petrolio, energia eta ura) aurreztu dira, atmosferara egin ez diren isurpenez gain.

IKUSKAPENAK

123 elikagai-ikuskapen. Iruñeko Udaleko Elikagai Ikuskaritzak 93 jarduera ikuskatu ditu, guztira, eta 123 ikuskapen egin. Kopuruak % 17,8ko igoera dakarkio iazko ikuskapen-zenbatekoari. Toki hauetan egin dira ikuskapenak: Runa feria-lekuko jatetxeetan, Antoniuttin, Eskualde Etxeen gunean, Basotxoan, kolektiboei lagatako beste gune batzuetan, Foruen eta Gurutzeko plazetako kontzertu-tokietan, tabernetan, jatetxeetan eta ostalaritza eta elikagaiekin zerikusia duten bestelako jarduera egonkor zein ez-egonkorretan. Ikuskapen horien guztien artean, **104 gabezia antzeman dira**, gehienak instalazio eta aparatuetan, eta gainontzekoak honako gai hauekin lotuta: elikagaien kontserbazio-egoera, elikagaiak prestatzeko era ezegokia, edo prestakuntza falta elikagaien higieneari buruz.

Errekerimenduak zarata dela medio. Zaraten kontrolari dagokionez, sanferminetan 2.461 zarata-kontrol egin dira establezimenduetan eta bide publikoan, **eguneko 200 kontrol baino gehiago**, iazko kopurua baino % 13 handiagoa. **643 kasutan, soinua altu edo oso altu zegoen.**

	UZT. 6	UZT. 7	UZT. 8	UZT. 9	UZT. 10	UZT. 11	UZT. 12	UZT. 13	UZT. 14	GUZTIRA	%
EGINDAKO IKUSKAPENAK	267	274	211	274	291	294	277	287	286	2.461	
ZUZENAK	170	208	154	201	228	227	187	196	247	1.818	73,8
MUSIKA ALTUA	65	65	40	61	49	57	71	66	28	502	20,4
MUSIKA OSO ALTUA	32	1	17	12	14	10	19	25	11	141	5,7

Uztailaren 6, 7, 8 eta 9an, Ingurumen Ingeniaritzako zerbitzuak arau-urraketak antzeman ditu, edo zehapen-espedientea ireki, jarduera batzuetan kanpoaldean bozgorailuak zeudelako, bozgorailuak kanporantz bideratuta zeudelako edo musika-isurpen maila altua zelako. Uztailaren 10etik 14ra arte ikuskaritza mantendu da, eta zenbait kasutan egiaztatu da ohartarazitako edo zehatutako lokalek hautemandako arau-urraketak zuzendu dituztela; hala ere, asteen zehar gehiegizko zarata-guneren bat agertu da, edo arau-urraketaren bat bozgorailuen kokapenari dagokionez.

Udalak **Labrit aldapako** terrazei emandako Baimenaren baldintzetan, musikarako gehieneko muga 5 dBA jaitسي da, eta musikarako ordutegian 2 ordu gutxiago daude egunean.



Jaiaren erdigunean, **Alde Zaharrean**, kalez kale balorazioa eginez, punturik beltzenak berriz ere San Nikolas kalean, Estafeta kaleko goiko aldean eta Erriberri kaleko terraza-eremuan egon dira. Aurten **24 orduko musika-itxierak 5 lokaletan** egin dira, Estafeta, San Nikolas eta Erriberri kaleetan, hutsegiteak errepikatzeagatik, behin administratiboki zehatuta, oso musika altuagatik eta kanporantz bideratutako bozgorailuengatik. Behin eta berriro ohartarazi zaie zenbait establezimenduri, bozgorailuak kalera zuzenduta edo kalean zituztelako edo musika altuegi jarrita zutelako, eta ate-leihoak irekita. Horietako gutxi batzuek arau-haustea zuzendu dituzte jaietako tarte nagusian zehar. Aurten kalera zuzendutako bozgorailu gutxiago antzeman dira erantzukizuneko aitorenaren bidez festetan edariak eta arropa edo osagarriak saltzen dituzten establezimenduetan. Hori antzeman den kasu guztietan, errekerimendua egin zaie arduradunei. Baimenik gabe musika zuzenean eta megafonia-bolumen altuarekin eman duten kasuek gora egin dute.

Ura. Ingurumen Osasunerako zerbitzuak 6 lagin hartzen ditu egunean, azterketa kimiko eta bakteriologikorako, sanferminetan jendetsuenak izaten diren tokietan. Inon ez da gorabeherarik egon. Uztailaren 6tik 14ra, Hiri Altzarietako zerbitzuak egunero garbitu ditu Iruñeko erdiguneko iturrietako hodi guztiak, haien osasun-egoera bermatze aldera.

Udalaren jabetzako igerilekuen ikuskaritza. Sanduzelaiko kirol-hiria eta Arantzadi kirol-hiria. Ura ikuskatu eta aztertu egiten da han bertan, jaien aurreko egunetan eta sanferminetan. Kasu guztietan emaitzak egokiak izan dira.

Animalien kontrola. Zoonosi zerbitzuak 11 txakur jaso ditu, horietako 2 zaurituta, eta egokiro zaintzen ari dira; baita ere, autoek harrapatutako 2 katu, Animaliak Hartzeko Zentroan osasun-laguntza egokia jasotzen ari direnak. Jasotako 11 txakurretako 4 itzuli dizkiete jabeei jada. Iazko sanferminen aldean, jasotako txakur- eta katu-kopuruak zertxobait handiagoak dira. Zakur-hozkadei dagokienez, bi esku-hartze egon dira, eta basafaunaz bezainbatean, aurten ez da gorabeherarik egon.

Uztailaren 6tik 13ra, bizilagunik gabeko eraikin publiko batean zeuden 16 katu jaso ziren, laster eraitsiko baita.

Saneamendu-sareko lotuneak. Aurreko egunetan, uztailaren 1etik 4ra, sanferminetan jartzen diren jarduera ez-iraunkor guztietako ur-harguneetan lotuneak ongi daudela egiaztatu zen; toki horiek dira, adibidez, baimendutako komunak eta dutxak, Agustindarren industrialdean dagoen zirkua, Runa parkeko barrakak, kaleko tabernako barrak eta ferietako autokarabanetako harguneak.



DUTXAK ETA KOMUN PUBLIKOAK

3.143 dutxa. Aurten dutxa-zerbitzu kopurua aurreko urteen antzekoa izan da. Uztailaren 8an eta 9an emandako zerbitzuetan, aldiz, jaitsiera garrantzitsua antzematen da; ziur aski eguraldi txarragatik. Ez da gorabehera garrantzitsurik egon.

470 komun publiko. Sanferminetan, guztira, 470 komun publiko egon dira erabilgarri etengabe, uztailaren 6tik 14ra bitartean. Saneamendu sarearekin konektatutako kabinak eta Gazteluko plazako kamioia 24 orduz egon dira irekita (uztailaren 6ko goizeko 08:00etatik uztailaren 15eko 08:00ak arte). Jaien aurreko egunetan ordutegi bereziak ezarri ziren, komun finkoetan, Antoniuttiko ferietako salerosleendako –feriak muntatzen ari ziren bitartean– baita Basotxoko salmenta-postuetarako ere. Guztiek etengabeko zaintza eta garbiketa izan dute, Trinitarioseko moduluak eta azienda-feriakoak salbu. Modu osagarrian eta baliabide hori handitze aldera, multzokako komun kimikoak paratu dira hainbat tokitan, hala nola kontzertuetako guneetan eta kolektiboek paratutako festaguneetan.



SARE SOZIALAK: IA 4 MILA MILIOI INPAKTU TWITTERREN

Twitter: 3.999.899.435 inpaktu. Sanferminei buruzko hizketaldiak ia 4.000 milioi inpaktuen kopurua jo du Twitterren. Iruñeko Udalak Tweet Binder izeneko nafar tresnarekin egindako azterlanaren arabera, 2019ko sanferminak 3.999.899.435 aldiz agertu dira. Kopurua inpaktu-errekorra da; izan ere, 2018an 3.723.333.450 aldiz agertu ziren mundu osoko timelineetan. 2017an 3.956.036.688 izan ziren, eta 2016an, 3.221.425.607.

Txio kopurua: 118.783

Kontu kopurua: 69.298

Jario gehien eragin dituzten gaiak: txupinazoa eta entzierroak. Egutero sanferminen inguruko txioak egon badira ere, lehenengo hiru egunetan kontzentratu ziren mezu gehienak. Bi momentu nabarmentzen dira bereziki: Txupinazoa, 9,8 milioi txio baino gehiago igorri baitziren, eguerdiko 12:00etatik 13:30era; eta lehenengo entzierroa, uztailaren 7koa. Egun horretan, beste jario-gailur bat izan zen: 07:30etik 08:30era arte, 16,1 milioi txio igorri ziren.

Komunikabideak: nabarmentzekoak dira nazioarteko komunikabide eta agentziek igorritako txioak, hala nola Reuters, CNN, detikcom, ABC News eta The Associated Press.

San Fermin ofiziala **WWW.SANFERMINOFICIAL.COM**

www.sanferminoficial.com webgunearen hirugarren urtean, guztira 57.396 erabiltzailek bisitatu dute uztailaren 6tik 14a arte, eta 86.884 saio abiarazi dituzte. Hori % 158ko igoera da bisitetan, 2018an erabiltzaileak 22.188 izan baitziren. Webguneako bisita-kopurua 218.358 izan da, saio bakoitzean, batez beste, 2,52 orri bistaratu baitira.

Aurreko urteetan bezala, orririk bisitatuena, azalaz gain, honako hauek izan dira: egun bakoitzeko programari buruzko informazioa eskaintzen duena, su artifizialen lehiaketako bozketan parte hartzeko gunea eta Erraldoi eta Buruhandien Konpartsaren ibilbideei buruzkoa.

Erabiltzaileen jatorriari dagokionez, % 82 Espainiatik sartu da. Zehazki, % 17 Iruñetik, beste % 17 Madrildik eta % 12 Bartzelonatik. Hurrengo herrialdeak, sarrera-kopuruaren arabera, Frantzia (% 10) eta Estatu Batuak (% 2) izan dira. Webguneako bisitarien dagokionez, % 78 mugikorraren bidez sartu da, % 16k ordenagailua erabili du, eta gainerako % 5ak tableta. Bisitarien % 76,5ek bilatzaile bat erabili du webgunera sartzeko, % 15 zuzenean sartu da helbidea idatzita, % 6k beste webguneren bateko estekak erabili ditu, eta gainerako % 2,5ak sare sozialak.

KOMUNIKABIDEAK: 400 PROFESIONAL AKREDITATU DIRA JAIETARAKO

Akreditatuak: mundu osoko 121 komunikabideko 400 profesional grafiko eta kazetari baino gehiago etorri dira Iruñera, jaien berri ematera. Nazioko komunikabideez gain, akreditatutako kazetariak honako herrialde hauetatik etorri dira: Estatu Batuak, Erresuma Batua, Frantzia, Mexiko, Alemania, Brasil, Errusia, Japonia, Kuba eta Hego Korea

Txupinazoa: 40 komunikabidetako 160 lagun akreditatuta

Entzierroak: 121 komunikabidetako 389 lagun akreditatuta

Gaixoa ni: 33 komunikabidetako 98 lagun akreditatuta